PRENTSARAKO OHARRA

# GIDAUTAKO SEI IBILBIDE ZALLAKO ONDARE ARKITEKTONIKO ABERATSA EZAGUTZEKO

- **Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagon Enkarterrietako Museoak eta Zallako Udalak, Enkarterriko udalerriko eraikin garaikide esanguratsuenak ezagutzeko gidautako dobako 6 ibilbide prestau ditue.**

- **Gorka Pérez de la Peña Oleaga "Azterlan-Inbentarioa: Enkarterriko Arkitektura Garaikidea (1870-1975)" lanaren egilea izango da bertaratzen diranak gidauko dituana.**

- **Lehenengo ibilbidea zapatu honetan, garagarrilaren 11n, izango da, La Herrera-Ijalde inguruan, eta beharrezkoa izango da museoaren webgunean (www.enkarterrimuseoa.eus) izena emotea. Gehienez 30 personak hartu ahal izango dabe parte.**

(*Bilbon, 2020ko garagarrilaren 7an*). Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagon Enkarterrietako Museoak eta Zallako Udalak lankidetzarako proiektua hasiko dabe zapatu honetan, garagarrilaren 11n, gidautako dobako sei ibilbideren bitartez Zallako ondare arkitektoniko garaikidea ezagutzera emoteko. Lankidetza hori, azken urteetan Batzar Nagusiek eta Enkarterriko museoak Gorka Pérez de la Peñaren eskutik arkitektura garaikidearen inguruan gauzatu daben ikerketa proiektuaren jarraipena da.

Gorka Pérez de la Peña Oleaga "Azterlan-Inbentarioa: Enkarterriko Arkitektura Garaikidea (1870-1975)" lanaren eta "Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira" liburuaren egilea izango da, hain zuzen be, datorren zapatuan hasiko diran bisitak gidauko dituana. Datorren zapatuan La Herrera-Ijalde inguruko altxor arkitektonikoak jarriko ditu balioan, bi ordu eta erdi inguru iraungo dituan ibilbidean. Hitzordura joateko beharrezkoa izango da aurretik museoaren webgunean (www.enkarterrimuseoa.eus) izena emotea, eta maskarea eroan beharko da. Gehienez 30 personak hartu ahal izango dabe parte.

Goizeko 10:00etan hasiko dan ibilbidea estilo neo-euskalduneko Taramonako Eskoletatik abiauko da. Manuel de Taramona industria-gizonak agindu eutsazan Ricardo de Bastida arkitektoari 1924an. Bertatik, taldea, 1896an Vicente Gorbeñak estilo eklektikoan egin eban tren geltokira joango da; gero, 1822an estilo neoklasikoan berreregi zan Santa Isabel eleizeara; estilo eklektikokoa dan, Ángel Galíndezek 1895ean eregi eban eta, hori be, Manuel

de Taramonak finantzau eban hilerrira; eta Jesús Urrutia ingeniariak 1899an ontziola zahar batean eregi eban La Mella Hidroelektrikeara. Gorka Pérez de la Peñak 1894an sortu zan Berun Fabrikaren xehetasun guztiak emongo ditu, eta Urrutia jauregiak eta San Antonio baseleizeak osatzen daben moltso monumentala barriztetako lanen erreferentzia txikia egingo dau. Azken horreek biak XVII. mendearen bigarren erdialdekoak dira.

Oraindino egunik ez daukien beste bost ibilbideek Mimetiz, Gallardi-Llantada eta Aranguren inguruak La Papelera lantegia eta Sollanoko ur araztegia hartuko ditue.

Informazino gehiago: 94 650 44 88 / 94 610 48 15

**NOTA DE PRENSA**

# SEIS ITINERARIOS GUIADOS PARA CONOCER EL RICO PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO DE ZALLA

- **El Museo de Las Encartaciones, propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia, y el Ayuntamiento de Zalla, han ideado 6 rutas gratuitas guiadas para conocer los edificios contemporáneos más significativos de la localidad encartada.**

- **El autor del "Estudio-Inventario de Arquitectura Contemporánea de Las Encartaciones (1870-1975)", Gorka Pérez de la Peña Oleaga, será el encargado de guiar a los asistentes.**

- **La primera ruta se llevará cabo este sábado, 11 de julio, en el entorno La Herrera-Ijalde y es necesario apuntarse en la web del museo** (www.enkarterrimuseoa.eus)**. Habrá un límite de aforo de 30 personas.**

(*Bilbao, a 7 de julio de 2020*). El Museo de Las Encartaciones, las Juntas Generales de Bizkaia y el Ayuntamiento de Zalla van a dar comienzo este sábado, 11 de julio, un proyecto de colaboración que pretende difundir el patrimonio arquitectónico contemporáneo de Zalla por medio de seis itinerarios guiados gratuitos. Esta colaboración es la continuación del proyecto de investigación que sobre arquitectura contemporánea, han llevado a cabo en los últimos años la Cámara vizcaína y el museo encartado de la mano de Gorka Pérez de la Peña.

Precisamente, el autor del "Estudio-Inventario de Arquitectura Contemporánea de Las Encartaciones (1870-1975)" y del libro "Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea", Gorka Pérez de la Peña Oleaga, será el encargado de dirigir estas visitas que comenzarán este próximo sábado para poner en valor los tesoros arquitectónicos del entorno La Herrera-Ijalde, en un recorrido que durará aproximadamente dos horas y media. Para acudir a esta cita es necesario apuntarse previamente en la página web del Museo de Las Encartaciones (www.enkarterrimuseoa.eus) y será obligatorio el uso de mascarilla. Habrá un límite de aforo de 30 personas.

El recorrido, que dará comienzo a las 10:00, se iniciará en las Escuelas de Taramona, de estilo neovasco, encargadas por el industrial Manuel de Taramona al arquitecto Ricardo de Bastida, en 1924. Desde aquí, el grupo se dirigirá a la estación de tren realizada en estilo ecléctico por Vicente Gorbeña en 1896; la iglesia de Santa Isabel, reconstruida en estilo neoclásico en 1822; el cementerio, de estilo ecléctico, construido por Ángel Galíndez en 1895 y

también financiado por Manuel de Taramona; y la Hidroeléctrica de La Mella, construida sobre una antigua ferrería por el ingeniero Jesús Urrutia en 1899. Gorka Pérez de la Peña ofrecerá todos los detalles de la Fábrica de Plomos, fundada en 1894 y hará una pequeña referencia a las obras de restauración del conjunto monumental del palacio Urrutia y ermita de San Antonio, ambos de la segunda mitad del siglo XVII.

Los otros cinco itinerarios, aún sin fecha, recorrerán los entornos de Mimetiz, Gallardi-Llantada y Aranguren, la fábrica de La Papelera y la estación depuradora de aguas de Sollano.

Más información 94 650 44 88 / 94 610 48 15